

Liburuak

KRITIKA

Literatura dosi txikitan

Haur eta gazteen literatura

Xabier Etxaniz Erle

GALTZAGORRI ELKARTEAREN eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez martxan jarri da “Klis-klasikoak” bilduma, haur eta gazte literaturan klasikotzat har ditzakegun hainbat lan argitalpen zainduetan birplazaratzeko. 2011ko amaieran argitaratu ziren lehen lau lanak, komiki bat, itzulpen bat, sor lan bat eta orain komentatzen hasiko garen liburu hau, tradizioa gaur egunera ekartzeko eginiko apustu eta lan interesgarria. Bildumak ez du formatu zehatzik, liburu bakoitzak berea du, baina guztietan zaindu da edizioa, bai testuak zuzentzean bai irudi eta argitalpenari dagokionez; eta, hain zuzen, zalantzak ditut liburuen azal gogor horien ordez ez ote liratekeen egokiagoak beste batzuk eta bilduman liburu gehiago argitaratu.

Batbirulau! liburuak 1984 eta 1986 bitartean Erein etxean plazaraturiko hiru libururen batuketa dugu. “Maria Goikoak” sailean argitaraturiko liburu hauetan geure tradizioetik jasotako kontakizun, jolas, kanta, esatera, ateraldi eta abar gaur egungo haurrei era erakargarri eta modernoan aurkezten zaizkie. Testua,



Batbirulau!
Anjel Lertxundi.
Antton Olariaga.
Alberdania, Erein, Igela. 2011.

irudia eta maketazioaren arteko konbinaketak bizitasuna ematen dio lanari eta pittin bat hemendik, apur bat handik, puska bat orain eta pixka bat ondoren... jateko (irakurtzeko) moduko eskaintza egin. Eta horretan, aitortu egin behar da Olariagaren ekarpena testuak osatzen, zama arintzen eta orriak bizi-bizi igaro ahal izateko.

Liburuak, nire ustez, bi hartzaile zuzen ditu. Alde batetik etxean aurretik esan bezala zerbait irakurri, jolastu, ikusi eta ikasi nahi duen irakurlea, dela haurra bakarrik edo heldu batekin batera eginiko irakur ekitaldian (dastatze ekintzan); bestetik haurrekin aritzen diren guraso eta, batik bat, irakasleak ditu lan honek hartzaile. Zenbakiakin jolasteko, aho-korapiloak botatzeko, igarkizunak asmatzeko, ipuin laburrak esateko, jolasteko, kantatzeko... aukera handiak eskaintzen baititu lan honek egunerokotasunean. Eta horixe da, gainera, Lertxundik eskaintzen diguna zenbait testutan, irakurleak zenbait kasutan ikusi egingo duelako ezaguna den kanta, jolas eta ateraldi batetik abiatuta nola eskaintzen digun beste bat (“Kalean gora,/ kalean behera,/ kalean gora/ gondola / ai, ai, ai, ai”).

Ipuin ezagunak eta txistek ere ageri dira bilduma honetan, baina beti arestian aipaturiko helburu horrekin, literatura, irakurgai atseginak eskaintzea dosi txikitan, nekatu gabe irribarrea ezpainean izan dezagun luzaro edo une labur batean, liburu hau poliki irakur baitaiteke hala nahi izanez gero.



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia